BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2819

EBAZPENA, 2013ko maiatzaren 8koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariarena, administrazio-espedientea bidaltzeko eta prozeduran interesatuta dauden pertsonei deitzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak 175/2013 prozedura arruntari buruzko administrazio-espedientea bidaltzeko eskatu du. Espediente hori Kristau Eskola elkarteak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2012ko abenduaren 20ko Aginduaren kontra aurkeztutako administrazioarekiko auzietarako errekurtsoak eragindakoa da. Agindu horren bidez, 2013-2014ko ikasturtean Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko ikastetxe publikoetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozesuan eskaerak egin eta epeak ezartzeko egutegi bateratua finkatzen da.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eskatutako administrazio-espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiari bidaltzea.

Bigarrena.– Interesatuta dauden pertsonei prozeduran agertzeko dei egitea, haien interesak defenditzeko egokitzat jotzen badute. Horretarako, bederatzi eguneko epe bat izango dute, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik hasita.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 8a.

Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendaria,
JOSU AGUIRRE GOITIA.